

## 6

### **ARRAIN, USAIN, ZAIN**

Bada euskaraz hitz-sail bat euskalki batzuetan *-ain* bukaera, beste batzuetan *-a(i)ñ* eta beste batzuetan *-ai* duena. Horien artean gehien erabiltzen direnak *usain*, *arrain*, eta *zain* eta honen eratorriak (*artzain*, *diruzain*, *ertzain* e.a.) dira. Literatura euskalkiei dagokionez, bizkaieraz, lapurteraz eta zubereraz, eta Baztango eta Nafarroa Behereko testuetan, palatalizazioa gorabehera, *-ain* da hitz horietan betidanik azaltzen den forma; gipuzkeraz eta Goi Nafarroako testuetan, aldiz, *-ai* da lehen testuez gero beti agertzen den aldaera.

1968an euskara baturako ontzat edo eman ziren irizpideen arabera Bizkaian eta Iparraldean erabiltzen diren formak dira, bat datozenean, hobestekoak. Bestalde, harrera aski ona izan dute harrez gero idazleen artean *-ain* amaiera duten aldaerek, azterketa guztiek adierazten dutenez. Salbuespen bakarra *gotzain* da, *gotzai* baino gutxiago erabilia izan dena; nolanahi ere, Bizkai aldean *gotzain* aldaera aski erabilia dela kontuan harturik, badirudi ez duela merezi *gotzai*-ren kasuan salbuespenik egitea.

*Dohain*-i dagokionez, ez da Bizkai aldean erabili den hitza; hala ere, Iparraldean Leizarragaz gero erabilera zabala izan duenez, Euskaltzaindiaren iritziz honetan ere ez da egoki salbuespenik egitea.

Ez da kasu bera *orain* gramatika-hitzarena, zeren honetan Bizkai-Gipuzkoetan beti *orain* erabili baita; orobat, aldaera hori ikusten da Iparraldeko zenbait idazle zaharrengan, Leizarraga eta Etxeberri Ziburukoarengan, esaterako, eta, beraz, badirudi hori dela hobetsi behar den aldaera.

*Mahai*-ri dagokionez, aldiz, *-n* gabeko forma da zabalduena, Hegoaldeko literatura tradizio guztiak hartzen dituen. Bestalde, Iparraldeko tradizioan ere ez da ezezaguna, Materregan, Axularrengan eta, mende honetan, Jean Etxeparerengan bederen aurkitzen baita.

***Hortaz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: -ain eta -ai aldaerak dituzten hitzetan -ain formak erabil daitezela; hau da, arrain, usain, zain, (eta honen eratorriak diren artzain, atezain, diruzain, itzain, ertzain, gotzain e.a.), dohain, eta orobat, orain idatz daitezela euskara batuan; baina beste sail batekoa denez gero mahai, eta ez mahain, idatz dadila.***

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua)